

Gure Haurraren garapena



Gure Haurraren garapena



Haurrek badituzte orokortzat jotzen diren garapen erritmo batzuk. Liburuxka honetan azalduko ditugu erritmo horiek, baina inor ez da larritu behar aipatzen diren trebetasunak adin jakin batzuetan betetzen ez badira, batzuk lehentxeago eta beste batzuk geroxeago beteko dituzte eta.

Dena dela, trebetasun horiek izatea gehiegi atzeratzen bada, komenigarria da pediatriari kontsulta egitea.

Hizkuntza funtsezkoa da garapenean

Haurra sortzen dugun une beretik, soinuak transmititzen dizkiogu, batez ere gure ahotsa. Eta ahots hori lotuko du haurrak, bereziki amarena, hizkuntzarekin eta komunikazioarekin.

Haurraren ama (edo lehen)-hizkuntza bere amarena eta aitarena izango da.

Gurasoek, hurrekin ez ezik, helduen artean ere euskaraz egiteak berebiziko garrantzia du, izan ere, haur horrek etorkizunean hizkuntza hori zenbateraino eta zein erraztasunez erabiliko duen baldintza dezake.

Haurrek ikusten dutena egiten dute eta entzuten dutena esaten dute, euskara helduen hizkuntza ere badela ikusten badu, are eta aberatsagoa izango da hizkuntza hori.



3 hilabete

Gizartea eta emozioak

- Irribarre egiten hasten da.
- Disfrutatu egiten du beste pertsona batzuekin jolas eginez, eta negar egin lezake jokoa amaitutakoan.
- Aurpegi eta gorputz adierazpenen bidez komunikatzen da.
- Aurpegiko mugimendu eta adierazpen batzuk imitatzen ditu.

Motrizitatea

- Burua altxatzen du ahuspez dagoenean.
- Besoen gainean jartzen da ahuspez dagoenean.
- Hankak luzatu eta ostikoak ematen ditu etzanda gora edo behera begira dagoenean.
- Eskuak ireki eta itxi egiten ditu.
- Hankekin indarra egiten du gainazal irmoren baten gainean jarritakoan.
- Eskua ahora eramaten du.
- Eskuekin kolpeak ematen dizkie zintzilik dauden gauzei.
- Jostailu txikiak eskuetan hartu eta astindu egiten ditu.

Ikusmena

- Aurpegiei arreta handiz begiratzen die.
- Mugimenduan dauden gauzei begiez jarraitzen die.
- Eskuak eta begiak koordinatzen hasten da.

Entzumena eta hizkuntza

- Irribarre egiten du besteren ahotsa entzuten duenean.
- Zezelkatzen hasten da.
- Burua soinuak datozen aldera biratzen hasten da.

Ezaguna duen ahots horrek
euskaraz egiten badio, euskarazko
soinuak imitatuko ditu haurrak.



7 hilabete

Gizartea eta emozioak

- Joko sozialekin gozatzen du.
- Ispiluetan islatutako irudiez interesatzen da.
- Beste pertsona batzuen emozio adierazpenen aurrean erantzun egiten du.

Motrizitatea

- Bi aldeetara iraultzen da (urdaitetik bizkar aldera eta bizkarretik urdail aldera).
- Eseri egiten da; eskuekin indarra eginda, lehenik, eta eskuen laguntzarik gabe gero.
- Pisu guztia hanken gainean jartzen du.
- Gauzak hartzen saiatzen da esku batekin.
- Gauzak esku batetik bestera pasatzen ditu.
- Behatzak arrastelu gisa erabiltzen ditu, gauzak beregana hurbiltzeko.

Ikusmena

- Koloreak ikusteko gai da.
- Urrutirako ikusmena garatzen ari da.
- Gauzei begiekin jarraitzeko gaitasun handiagoa du.

Hizkuntza

- Erreakzionatu egiten du bere izena esandakoan.
- Erreakzionatu egiten du “ez” esaten zaionean.
- Emozioak bereizteko gauza da ahotsaren tonuari erreparatuz.

- Soinuei soinuekin erantzuten die.
- Poza eta haserrera hitzez adierazten du.
- Soinu taldeak zezelkatzen ditu.

Euskaraz hitz egiten bazaio, haren lehenengo adierazpenak eta munduarekiko lotura euskaraz izango dira.

Ezagumen aldetik

- Pixka bat ezkutatuta dauden gauzak aurkitzeko gauza da.
- Eskuekin eta ahoarekin esploratzen hasten da.
- Bere eskueran ez dauden gauzak ailegatzten saiatzen da.



12 hilabete

Gizartea eta emozioak

- Pixka bat lotsatu edo larritu egiten da ezezagunen aurrean.
- Negar egiten du ama edo aita urruntzen direnean.
- Beste pertsona batzuk imitatzea gustatzen zaio jolas egiten duenean.
- Baditu gogoko pertsona eta jostailu batzuk.
- Jana ematen diotenean egiten dituen gauzen aurrean, gurasoak nola erantzuten duten ikusi nahi du.
- Bere jokaeraren aurrean gurasoek nola erantzuten duten ikusi nahi du.
- Litekeena da egoera batzuekiko beldurra izatea.
- Nahiago du ama, edo zaintzen duen pertsona, besteak baino.
- Soinuak edo keinuak errepikatzen ditu atentzioa emateko.
- Eskuekin jateko gauza da, beste inork lagundu gabe.
- Besoak eta hankak luzatzen ditu janzten laguntzeko.

Motrizitate aldetik

- Inork lagundu gabe esertzeko gauza da.
- Urdailaren gainean lau oinean jarri eta aurreraka ibiltzen da.
- Arrastaka ibiltzen da eskuak eta belaunak baliatuz.
- Posturaz aldatzen da (eserita dela lau oinean ibiltzen hasi edo ahuspez jarri).
- Bera bakarrik altxatzen da.
- Altzariei heldu eta oinez ibiltzen da.

- Batzuetan, ezeri heldu gabe ere egoten da zutik eta geldi.
- Gauza da 2 edo 3 pausu ezeri heldu gabe emateko.

Esku trebeziak

- Gai da gauza txiki batzuei hatz erakuslearen eta lodiaren artean heltzeko.
- Bi gauza elkarren kontra jotzen aritzeko gai da.
- Gauza batzuk ontzietan sartzen ditu.
- Gauza batzuk ontzietatik ateratzen ditu.
- Ingurukoek bere gauza batzuk eraman ditzaten uzten du.
- Hatz erakuslearekin ukitzen du.
- Zirriborroak egiten ditu (aurre-idazketa).

Hizkuntza aldetik

- Arreta handiagoa jartzen dio hizkuntzari.
- Ahoz egindako eskari simple batzuei erantzuteko gauza da.
- Erreakzionatu egiten du “ez” esaten diotenean.
- Keinu simple batzuk egiten ditu (burua alderik alde erabili, adibidez) “ezetz” esateko.
- Zezelka hitz egiten du ahotsean inflexioak eginez (tonua aldatuz).
- “Aita” eta “ama” esaten du.
- “Ooo” edo antzeko hotsak egiten ditu.
- Hitzak imitatzen saiatzen da.

Hizkuntzaz ohartzen hasiko da, ulertu egingo du, hitz egiten hasiko da. Hizkuntza batean garatzen ari da, eta emozioak ere hizkuntza horretan garatuko ditu.

Ezagumenak

- Gauzak era askotara esploratzen ditu: astinduta, jota, botata, askatuta...
- Erraz aurkitzen ditu ezkutatutako gauzak.
- Dagokion irudiari begiratzen dio hura aipatzen diotenean.
- Gauzak egoki erabiltzen hasten da.



24 hilabete

Motrizitatea

- Oinez bere kasa ibiltzen da.
- Gauza da oinez ibili eta jostailu handi bat edo txikiago batzuk eramateko.
- Korrika egiten hasten da.
- Hanka puntetan ibiltzen da.
- Baloiari ostikoz ematen dio.
- Altzarietara igo eta jaitsi bere kasa egiten da.
- Eskailerak igo eta jaitsi egiten ditu zerbaiti helduta.

Esku trebeziak

- Zirriborroak egiten ditu bere kasa.
- Ontziari buelta ematen dio barruan dagoena ateratzeko.
- Lau bloke edo gehiagoko dorreak eraikitzen ditu.
- Litekeena da esku bat bestea baino gehiago erabiltzea.

Hizkuntza

- Gauzak eta irudiak seinalatzen ditu haiek aipatzen zaizkionean.
- Gertuko pertsonen izenak, gauzak eta gorputz atalak ezagutzen ditu.
- Hitz solte batzuk esaten ditu (15 eta 18 hilabete bitartean).
- Esaldi erraz batzuk erabiltzen ditu (18 eta 24 hilabete bitartean).
- Jarraibide erraz batzuk segitzen ditu.
- Beste batzuen arteko elkarrizketetan entzundako hitz batzuk errepikatzen ditu.



Dagoeneko hizkuntza du bere komunikazio bidea. Lehenengo hizkuntza finkatu egingo da. Beste hizkuntza batzuk ikasteko izango duen gaitasunik handiena 12 urte bete artean izango du.

Ezagumenak

- Maindire batzuen azpian ezkutatutako gauzak ere aurkitzen ditu.
- Forma eta koloreen araberako sailkapenak egiten hasten da.
- Irudimenarekin jolas egiten hasten da.

Gizartea

- Beste batzuen jokaera imitatzen du, batez ere pertsona helduena eta bera baino haur handiagoena.
- Lehen baino gehiago konturatzen da pertsona independentea dela.
- Emozionatu egiten da beste haur batzuekin batera denean.

Emozioak

- Geroz eta independenteagoa da.
- Erronka jokaera bat erakusten hasten da.
- Bereizteak sortzen duen larritasuna handitu egiten da adin honen erdialdera, eta gero desagertu egiten da.



3 urte

Motrizitatea

- Ondo igotzen da gora.
- Bi hankak txandaturaz igo eta jaisten ditu eskailerak (hanka bat maila batean eta bestea bestean).
- Baloitari ostikoz ematen dio.
- Erraz egiten du korrika.
- Trizikloan pedalei eraginez ibiltzen da.
- Erraz makurtzen da aurre aldera erori gabe.

Esku trebeziak

- Goitik beherako eta alde batetik besterako marrak eta borobilak egiten ditu arkatzez.
- Liburuen orriak pasatzen ditu.
- Sei bloke baino gehiagoko dorreak eraikitzen ditu.
- Arkatzari ondo heltzen dio.
- Tapak jarri eta kendu egiten ditu, lotu eta askatu ere egiten ditu.
- Koilara eta sardexka erabiltzen ditu, eta, batzuetan, labana ere bai.
- Arropak jantzi eta erantzi egiten ditu.

Hizkuntza

- Ia gauza eta irudi arrunt guztiak ezagutu eta izendatzen ditu.
- Esaldirik gehienak ulertzen ditu.
- Gauzen kokapena ulertzen du (gainean, barruan, behean).
- Lau edo 5 hitzeko esaldiak erabiltzen ditu.
- Bere izena, adina eta sexua esateko gauza da.



- Izenordainak erabiltzen ditu (ni, zu, gu, haiek).
- Koloreen izenak ondo esaten ditu.
- Haurra ezagutzen ez duten pertsonak ere ulertzen dituzte hark esaten dituen hitzik gehienak.

Hizkuntza da bere ingurua identifikatzeko eta harremanetarako bitartekoa. Helduak eta helduen hizkuntza imitatzen ditu.

Ezagumenak

- Jostailu mekanikoak martxan jartzen ditu.
- Gauza batzuk liburuetan azaltzen direnekin lotzen ditu.
- Panpinekin, animaliekin eta pertsonekin irudizko jokoak egiten ditu.
- Gauzak kolorearen eta formaren arabera sailkatzen ditu.
- Hiru edo 4 piezako buru-hausgarriak egiteko gauza da.
- Ulertzen du “bi”ren kontzeptua.
- “Aita” edo “ama” izaten jolas egiten du.
- Ulertzen ditu “berdina”ren eta “desberdina”ren kontzeptuak.
- Esperientzia berriekiko interesa du.
- Lau koloreen izenak behintzat ondo esaten ditu.

Gizartea

- Helduak eta jolasetako lagunak imitatzen ditu.
- Jolaseko lagun ezagunekiko afektua adierazten du berez.
- Gauza da jokoetan bere txanda iritsi arte egoteko.
- Ulertzen ditu “nirea” eta “besterena” kontzeptuak.

Emozioak

- Afektua errezelarik gabe adierazten du.
- Emozio barietate handia adierazten du.
- Hiru urterekin, erraz bereizten da gurasoengandik.
- Egunero egiten dituen gauzetan aldaketa handiak egitearen kontra azaltzen da.



4 urte

Motrizitatea

- Salto egiteko eta oin baten gainean 5 segundo egoteko gauza da.
- Eskailerak igo eta jaitsi ezeri heldu gabe egiten du.
- Baloia ostikoz ematen dio.
- Baloia buruz gain botatzen du.
- Gehienetan, gauza da baloia bote egin eta gero hartzeko.
- Atzera eta aurrera arin mugitzen da.
- Eskuarki, bere kasa moldatzen da komunera joan behar duenean.

Esku trebeziak

- Irudi karratuak kopiatzen ditu.
- Pertsona baten irudia egiteko gauza da, 2 edo 4 gorputz atalekin.
- Badaki guraizeak erabiltzen.
- Borobilak eta karratuak marrazten ditu.

Hizkuntza

- Gramatika arau oinarriko batzuk ikasiak ditu.
- Zenbait hitzeko esaldiak osatuz hitz egiten du.
- Argi, eta ezagutzen ez duten pertsonak ere erraz ulertzeko moduan, hitz egiten du.

- Ipuinak kontatzen ditu.
- Etorrizuneko denborak erabiltzen ditu aditzetan.

Hizkuntza garapen betean dago, eta gurasoek, haurrekin ez ezik, helduen artean ere hizkuntza horretan egiten badute, are eta aberatsagoa izango da hizkuntza hori.

Ezagumenak

- Ulertzen du zenbatzearen kontzeptua eta zenbaki batzuk ezagutzea ere litekeena da.
- Arazoak ikuspegi bakar batetik begiratuta konpontzen saiatzen da.
- Denboraren kontzeptua ulertzen hasten da.
- Ipuin baten zati batzuk gogoan hartzen ditu.
- Irudimena erabiliz jolas egiten du.

Gizartea

- Beste haur batzuekin kolaboratzen du.
- Fantasia jokoetan irudimen handia erakusten du.
- Independentetagoa da.

Emozioak

- Iruditzen zaio berak ondo ezagutzen ez dituen irudi asko “munstroak” izan daitezkeela.
- Bere burua pertsona osotzat dauka, gorputza, burua eta sentimenduak dituen pertsonatzat.
- Askotan ezin du bereizi fantasiaren eta errealitatearen arteko aldea.



5 urte

Motrizitatea

- Gauza da oin baten gainean 10 segundo edo gehiago egoteko.
- Saltoak eta itzulipurdiak egiten ditu.
- Zabuan bere kasa ibiltzen da; gora igotzen da.
- Gauza da alboz salto egiteko.

Esku trebeziak

- Triangeluak eta beste irudi batzuk kopiatzen ditu.
- Gorputz osoa duten pertsonak marrazten ditu.
- Hizki batzuk idazten ditu.
- Arropak bere kasa janzen eta eranzten ditu.

Hizkuntza

- Ipuin baten zati batzuk gogoan hartzen ditu.
- Bost hitz baino gehiagoko esaldiak osatuz hitz egiten du.
- Lehen baino ipuin luzeagoak kontatzen ditu.
- Bere izena eta helbidea esateko gauza da.

Ezagumenak

- Hamar gauza edo gehiago kontatzeko gai da.
- Denboraren kontzeptua hobeto ulertzen du.
- Etxean egunero erabiltzen diren gauza batzuk (jana, etxetresna elektrikoak) ezagutzen ditu.



Gizartea

- Lagunen gustua egin nahi du.
- Lagunen antza izan nahi du.
- Litekeena da araei kasu handiagoa egitea.
- Gogoko du abestea, dantza egitea eta antzeztea.
- Independentetagoa da, eta inguruko bizilagunak ikustera bera bakarrik joateko gai ere izan daiteke.

**Beste haur batzuekiko eta helduekiko harremana garatzen du.
Euskara finkatuko badu, beharrezkoa du inguru hori
euskalduna izatea, gaztelera nagusi den inguru batzuetara
sarbidea izaten hasiko da eta.**

Emozioak

- Bere sexualitatearekiko kontzientzia handiagoa du.
- Gauza da fantasia eta errealitatea bereizteko.
- Batzuetan asko exijitzen du, eta beste batzuetan izugarri laguntzen du.

